


2011ko abenduan industriako prezioek % 0,3 egin dute behera, aurreko hilabetearen aldean

lazko datuekin alderatuz gero, % 4,8 egin dute gora

Euskal AEko industria prezioen indizea: EUSTATen datuen arabera, Euskal AEko industriako prezioek % 0,3 egin dute behera 2011ko abenduan, aurreko hilabetearen aldean. Datu horien arabera, azken hamabi hilabeteetako industriako prezioen aldaketa jaso duen abenduko urte arteko tasak % 4,8ko hazkundera izan du.

Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen abenduko urte arteko tasak. Behin-behineko datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Sektore-azterketa zehatzagoak erakutsi bezala, 2011ko abenduan, eta aurreko hilabetearen aldean, "Erauzteko industriak" izeneko adarrak izan du inflaziorik handiena (% 2,2), eta ondoren daude "Zurgintza, papera eta arte grafikoak" (% 0,2), "Industria kimikoa" (% 0,2) eta "Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa" (% 0,2). Aldiz, prezioetan beherakada handiena izan duten adarrak, honakoak izan dira: "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (-% 0,8), "Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria", (-% 0,7) eta "Metalurgia eta produktu metalikoak" (-% 0,5).

2010eko abendutik 2011ko abendura, urte arteko aldian, prezioen hazkunderik handienak ondoko adarretan eman dira: "Energia elektrikoa, gasa eta lurruna" (% 20,1), "Kokea lortzeko eta petrolioia fintzeko fabrikak" (% 15,8) eta "Industria kimikoa" (% 6,7). Kontrara, prezioetan hazkunderik txikienak "Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa" (% 0,2) eta "Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza" (% 0,5) sektoreetan gertatu dira.

Ondasunak xede ekonomikoaren arabera sailkatuta, eta aurreko hilabetearekin alderatuta, Energiaren prezioek % 0,6 egin dute behera; Bitarteko ondasunen prezioetan ere beherapena gertatu da (-% 0,4), Ekipamenduko Ondasunetan bezala (-% 0,1). Kontsumo Ondasunek, oro har, gora egin dute (% 0,2), batez ere Kontsumo Ondasun Ez Iraunkorrek gora egin dutelako (% 0,3); Kontsumo Ondasun Iraunkorrek igoera apalagoa izan dute (% 0,1).

Ondasunen multzo handi hauen prezioen bilakaera guztiek ere goranzkoak dira urte arteko aldian. Energiaren prezioek % 17,6 egin dute gora, Ekipamenduko Ondasunenak % 2,1, Tarteko Ondasunenak % 1,8 eta Kontsumo Ondasunenak beste horrenbeste: % 1,8. Azken hauen artean, % 2,3 igo dira Kontsumo Ondasun Ez Iraunkorren prezioak eta % 0,8 Kontsumo Ondasun Iraunkorrenak.

INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA. EUSKAL AE. DATU AURRERAPENA. 2011ko ABENDUA				
GOIBURUAK	INDIZEA Oinarria 2005=100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hila- rean	Aurreko urteko hil beraren aldea	Aurreko abenduaren aldea
INDIZE OROKORRA	122,6	-0,3	4,8	4,8
SEKTORE-BANAKETAK				
Ateratze-industriak	123,1	2,2	0,6	0,6
Manufaktura-industria	119,7	-0,3	3,4	3,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	158,8	-0,8	20,1	20,1
ONDASUNAK, HELBURU EKONOMIKOKA				
Kontsumo-ondasunak	114,5	0,2	1,8	1,8
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	105,8	0,1	0,8	0,8
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	118,3	0,3	2,3	2,3
Ekipo-ondasunak	111,2	-0,1	2,1	2,1
Bitarteko ondasunak	118,4	-0,4	1,8	1,8
Energia	157,6	-0,6	17,6	17,6

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizeari \(IPRI\) buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko Industria Prezioen Indizearen \(IPRI\) gaineko datu-bankua](#)